

# Passion for Knowledge jaialdiak hamar Nobel saridun bilduko ditu Donostian

Irailaren 27an hasiko da, Donostia International Physics Centerren hamar urteak ospatzeko, 'ezagutzaren festa'

**Ainara Arratibel** Donostia

Hamar Nobel saridun bilduko ditu Passion for Knowledge jaialdiak (ezagutzarekiko jakinmina), Donostia International Physics Centerrek (DIPC) zentroaren sorreraren hamargarren urteurrenaren harira egingo duen jaialdiak. Horiakin batera, goi mailako beste hainbat zientzialari bilduko dira irailaren 27a eta urriaren 1a artean Donostian egingo duten «ezagutzaren festa». DIPCko zuzendari Pedro Miguel Etxeniketik hamar urte hauetan bidelagun izan dituzten elkarre nazahiz banakoen lana eta babesa eskertu, eta jaialdiaren garrantzia nabarmendu du. «Berrirero ere zientziaren nazioarteko agertokian kokatu du Donostia», nabarmendu du Etxeniketik. Zientziaren ezagutza zabaltea eta gizartearen nahiz ekonomiaren garapenean duen garrantzia ohar-taraztea dira xedea. Era berean, jaialdiak goi mailako zientzialariaren topagune izatea nahi dute.

Jaialdiko idazkari nagusi Igor Campillok eman zituen, atzo, egitarauaren inguruko xehetasunak. Hitzaldiak, topaketak, lehiaketak eta erakusketak izango dira jaialdiaren ardatza. Jarduera gehienak Kurasaalean izango dira, baina Zientziaren Kutxagunean eta Aquariumean ere izango dira hainbat kontu.

Hasiera ekitaldia hilaren 27an egingo dute, Kurasaalean. Han, hitzaldi bana egingo dute Robert



DIPCko kideak, atzo, jaialdia aurkezten, Donostian. JON URBE/ARGAZKI-PRESS

Langerrek, Ikerketa Zientifikoko Asturiasko Printzeasaria irabazitakoak, eta Aaron Ciechanover Kimikako Nobel saridunak. Langer biomaterial berritzaileez ariko da, eta Ciechanover, botiken garapenaz.



**Berrirero ere zientziaren nazioarteko agertokian kokatu du jaialdiak Donostia»**

**PEDRO MIGUEL ETXENIKE**  
DIPCko zuzendaria

Goizez, Kurasaalean zientzialari-zakoa lau tailer egingo dituzte. Bertan, azken urteetan DIPC izandako lan ildoan inguruko hausnarketa egingo dute. Arratsaldeko egitaraua, berriz, irekia izango da. Bertaratzen direnek Jean Marie Lehn, Dudley Hersbach, Richard Ernst, Roald Hoffmann, Theodor Hansch, Frank

Wilczek, Claude Cohen-Tannoudji, Ada Yonath eta Heinrich Rohrer Nobel saridunak hitzaldiak entzun ahal izango dituzte. Horrekin batera, Bernardo Atxaga idazleak eta Luis de Pablo musikariak, adibidez, zientziak eta ezagutzaz duten ikuspegia azalduko dute. Hitzaldiek 45 minutu iraungo dute, eta sarrera doan da. Dena den, ezinbestekoa da izena ematea. Bertaratu ezin direnek [www.dipc.tv](http://www.dipc.tv) webgunearen bidez entzun ahal izango dituzte hitzaldiak. Twitter eta Facebook bidez ere emango dute jaialdiaren berri.

**Topaketak Kutxagunean**  
Ikasleen eta irakasleen artean zientziaren ezagutza zabalteko asmoz ere, bi topaketa antolatuko dituzte. Hilaren 28an Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta batxilergoko hainbat ikaslek Roald Hoffmann eta Frank Wilczek Nobel saridunekin hitz egin ahal izango dute. Leku guztiak beteta

daude jada. Hurrengo egunean irakasleen txanda izango da. Haietako Claude Cohen Tannoudji, Dudley Herschbach eta Heinrich Rohrerrek izango dute solasaldia. [www.dipc10.eu](http://www.dipc10.eu) webgunean eman dezakete izena irakasleek. Topaketak Zientziaren Kutxagunean izango dira.

Aquariumean, Itsasoagatik Jakin-mina zikloa egingo dute. Charles A. Farwell, Fernando de la Gandara eta Silvy Earl ozeanografiako adituek hartuko dute parte bertan. Gaiari lotutako bi dokumental ere emango dituzte.

Aquariumean bertan eta Bretxan zientziari buruzko arte eta argazkilaritza erakusketak bana egongo da ikusgai. Jaialdia amaitzeko, urriaren 1ean eta 2an Europako Fisika Modernoko Elkartearen topaketak izango dira.

**@** Jaialdiari buruzko informazio gehiago, ondorengo webgunean: [www.dipc10.eu](http://www.dipc10.eu)

## Gizarte larrialdietarako laguntzak ezin direla guztiz bete dio Jaurlaritzak

Gemma Zabaleta sailburuaren ustez, laguntzen 6,7 milioiko igoerarekin eskarien %75i erantzuten diete

**Erredakzioa** Gasteiz

«Duten izaera kontuan hartuta, eta bereziak nahiz ohiz kanpokoak direnez, ezin dira sekula %100ean bete». Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietarako sailburu Gemma Zabaleta hala mintzatu zen atzo, gizarte larrialdietarako laguntzen inguruan. Zabaletak laguntza horien inguruan izandako 6,7 milioi euroko igoeraren berri eman zuen, eta orduan egin zituen adierazpen horiek. «Goera horri esker, eskarien %75 beteta daude». Zabaletak iragarri zuen udaletako teknikariek biltzen jarraituko dela, laguntzen inguruko irizpide «homogeneoak» zehazteko.

Hain zuzen ere, eskari guztiak ez betetzea salatu du EAJko legebiltzarkide Eider Mendozak, eta hori udalen ahalmen ekonomikoaren arabera egotea. Hala, legea ez betetzea egotzi dio Jaurlaritzari. «Zentzugabea da Irungo herri-tar batek Gasteizko batena ez bezalako laguntza jasotzea».

Jaurlaritzak atzo onartu zuen, halaber, Gizarte Zerbitzuen Goi Ikuskaritzarako organoa arautzen duen dekretua. Jaurlaritzak argi utzi du organo horrek ez duela zigorrik jarriko, ikuskaritza lana egin baizik. Horretarako, analisiak, azterketak eta ikerketak egingo ditu. «Gizarte zerbitzuen funtzionamendua orekatu eta zuzena izatea nahi dugu».

**NOLA?**  
Tel./Fax: 948 09 36 31  
comercio@conservaspedroluis.com  
[www.nafarroaoiniez.net](http://www.nafarroaoiniez.net)  
**ETXERA BIDALIKO DIZKIZUGU!!**

1996ko 2181. mende-jubileu bista. 2001. 100. bertsio teknologikoa. Zuzen gero. 4. edizioa.

**nafarroa oinez 2010** arekin  
bat egin ezazu  
denon laguntzarekin

PLUTAK (1/2 onzi)	PEDEPO LUIS	€
Pilako osoa, estra	250 ml	43,80 €
Pilako osoa, estra	425 ml	63,00 €
Pilakoak tretan	228 ml	25,00 €
Orburu munitak, estra	720 ml	63,00 €
Zanzuri estra 5F	425 ml	71,80 €
Zanzuriak, estra 5-7F	720 ml	122,00 €
Barazoi menestra	720 ml	54,00 €
Tomate injitu ekologikoa	370 ml	21,95 €

Nafarroa Oinez lagundu nahi badiozu, egin eskaera eta ordaindu Euskadiko Kutxako kontu korrante honetan:  
3035 0153 41 1530008861

[www.conservaspedroluis.com](http://www.conservaspedroluis.com)



nafarroa oinez munduz munduz

